

TERMOSTATO ADIMENDUNA

Termostato Adimenduna Iberdrola Smart Home familiako produktua da, eta, horri esker, sakelako telefonoaren, tabletaren edo ordenagailuaren bitartez kudeatu daiteke berokuntza-sistema. Produktuaren zehaztapenak eta funtzionaltasunak Iberdrolaren webgunean eskura daitezke.

Prezioa: Prezioa 147,93 €-koa da (BEZik gabe)

SALMENTA-BALDINTZA OROKORRAK. IBERDROLA SMART HOME

1. Helburua

Hona hemen baldintza hauen helburua:

- (a) kontsumitzaileei IBERDROLA Smart Home produktuen salmenta-baldintzen berri ematea. Zehaztapenak eta zerbitzuak IBERDROLAren webgunean edo produktuen hornitzaileen webgunean zehaztuko dira.
- (b) IBERDROLAK bezeroari egiten dion produktu-salmentan aldeek dituzten eskubideak eta betebeharrak zehaztea.

2. Geografia-eremua

IBERDROLA Smart Home produktuak Espainiako lurralde osoan saltzen dira.

3. Zerbitzua erabiltzeko baldintzak

Produktuen, mugikorretako aplikazioen eta web-tresnen onlineko ezaugarriak erabiltzeko, online erregistratu beharra dago eta produktuen hornitzaileen webgunean dauden Zerbitzu Baldintza batzuk onartu. Zerbitzu horiek erabiltzeko, baldintza horiek irakurri eta onartu dituzula aitortu beharko duzu.

Era berean, zerbitzu horiek emateko produktuak erregistratzen dituzten datuak IBERDROLARI bidaliko zaizkio (zuzenean edo produktuen hornitzaileen bitartez). IBERDROLAK datu horiek erabili aurretik, zertarako erabiliko dituen jakinarazi beharko zaizu eta zuk onartu.

4. Fakturazioa eta ordainketa

Produktuen prezioaren fakturazioa zure hurrengo energia-fakturarekin batera egingo da, eta haren ordainketa-egunean ordainduko da. Geroago egiten bada ordainketa osoa edo ordainketaren zati bat, urteko berandutze-interes bat sortuko da, legezko interesaren berdina gehi ehuneko bi puntu, ordaintzeko aurreikusitako egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Aurrekoa gorabehera, ordainketa egiten ez bada, eta 1720/2007 Errege Dekretuan ezarritako baldintzekin bat etorritik, IBERDROLAK gertatutakoaren berri eman ahalko die diruzko betebeharrak betetzeari buruzko informazio-zerbitzuei, BEZEROARI ordaintzeko eskatu ondoren.

5. Produktuen ezagutza eta bateragarritasuna

Baldintza hauek onartuz gero, aitortu eta onartu egiten duzu produktuak eta haien zehaztapenak ezagutzen dituzula. Eskaera bat egin aurretik, zure erantzukizuna da eskatutako produktuak erabiliko dituzun ekipoekin eta instalazioekin bateragarriak direla egiaztatzea.

6. Eskaerak etxera eramatea

Eskaerak etxera eramateko aukera hautatzen baduzu, produktuak erosketa-prozesuan eman zenuen helbidean entregatuko zaizkizu. IBERDROLAK ez ditu aginduak baldintza honetan aipatzen den lurraldetik kanpo banatzen.

Anomaliaren bat dela-eta zalantzarik baduzu, garraiolariaren prozedurei jarraitu behar diezu (bereziki, edozein kalte, erreklamazio eta erreserbak jakinarazi), eta salgaia onartzeari uko egin. Garraiolariari berehala esan behar diozu produktua ez dagoela egoera onean, eta IBERDROLARI eskaeran hautemandako irregulartasun horien berri eman.

7. Etxera eramateko eskaeren entrega-epeak

Produktuak etxera eramateko modalitatean erosi badituzu, entrega-epea 4-8 egun balioduneko izan ohi da, eskaera egin den lekua arabera.

Zure ardura da IBERDROLARI posta elektronikoki bidez jakinaraztea hasiera bateko entrega-eguna igaro dela eta produktua ez dela iritsi. Jakinaraziz gero, garraio-enpresari buruzko ikerketa bat egin ahal izango dugu. Ikerketak 21 egun baliodun ere iraun dezake. Denboraldi horretan, produktuak aurkitzen badira, berehala bidaliko dira aginduan adierazitako lekura.

Bestalde, 21 eguneko ikerketa-epea igaro eta ez badira eskatutako produktuak aurkitzen, IBERDROLAK berriro bidali beharko ditu eskatutako produktuak bere kontura.

Eskatutako produktuak ez badaude eskuragarri, ahalik eta azkarrena jakinaraziko zaizu, eta produktuak prest daudenean bidaliko zaizkizu. Egoera hori gertatu eta eskaera ezeztatu nahi baduzu, IBERDROLAK produktuaren zenbateko osoa itzuliko dizu, atzerapenik gabe eta gehienez ere ordaintzen denetik 30 egunera. Produktu bat aldatu nahi izanez gero, kontsumitzaileak ordaindu beharko ditu bidalketa-gastuak.

Kontuan izan, mesedez, entrega-epe hauek gutxi gorabeherakoak direla. Ezingo dituzu kalteak erreklamatu, zenbatekorik atxiki edo agindua ezeztatu entregak denbora gehiago irauten badu. Hala ere, eskatutako produktuak 30 eguneko epean entregatuko dira gehienez ere, agindua erregistratu zen egunetik aurrera zenbatzen hasita. Hala ez bada, eskaera ezeztatu ahal izango duzu. Kasu horretan, ordaindutako zenbatekoak atzerapenik gabe itzuliko zaizkizu, eta ez duzu beste kalte-ordainik izango.

8. Kontratuan atzera egiteko eskubidea

Bezeroak atzera egin utz dezake kontratuan, erabakia justifikatzeko beharrik gabe eta inolako zigorrik jaso gabe, produktua jaso den edo zerbitzua aktibatuta den egunetik aurrera zenbatzen hasita hamalau (14) eguneko epean, kontsumitzaile eta erabiltzaile izaera izanez gero. Kontratuan atzera egitea erabakitzen badu, produktua itzultzean ordaindutako prezioa bueltatuko zaio, hurrengo klausulan ezarritako baldintzetan. Hortik kanpo gelditzen dira merkataritza- zein enpresa-jarduera batekin edo jarduera profesional zein lanbide batekin loturiko kontratuak. Kontratuan atzera egiteko, bezeroentzako arreta-telefonora (900 225 235) dei dezakezu edo harremanetarako beste bide bat erabil dezakezu, eta kontratua eten nahi duzula adierazi.

9. Itzulketen politika

Produktu bat itzuli nahi baduzu edo produktuarekin ados ez bazaude, berau aldatzeko edo dirua itzultzeko, honako baldintza hauek guztiak bete behar dituzu:

Prozedura honek 3 pauso ditu.

1. pausoa: produktua itzultzeko eskaera

Eskatutako produktua entregatu zen egunetik aurrera zenbatzen hasita 14 egun naturaleko epean erosketa bertan behera utzi eta produktua itzuli ahal izango duzu; hala ere, zeuk ordaindu behar izango dituzu itzulketak eragindako gastuak. 14 eguneko epea igarotzen denean, produktuak akatsen bat duenean edo adierazitako funtzio guztiak betetzen ez dituenean baino ezingo dira itzulketak egin.

Produktua itzultzeko eskatzeko, 900 22 45 22 telefono-zenbakira deitu behar duzu.

2. pausoa: produktua itzultzea

Produktua itzultzeko eskatzen baduzu, mezu elektronikoa bat bidaliko dizugu, eta bertan adieraziko dizkizugu itzultzeko formularioa eta igorlearen helbidea. IBERDROLAK produktua itzultzeko formularioa bidali eta zazpi egun balioduneko epean itzuli beharko dira produktuak. Epe hori igarotzen bada, IBERDROLAK ez ditu eskatutako produktuak aldatuko eta ez du dirua itzuliko.

Produktuak itzultzeak eragiten dituen kostu eta arrisku guztiak zure kontura ordaindu beharko dituzu. Beharrezkoa da produktuak hartu-agiria duen posta ziurtatuaren bitartez itzultzea, adierazitako helbidera iristen dela ziurtatu ahal izateko. Onartu egiten duzu pakete bat helmugara iristen ez bada eta IBERDROLAK ez badu jaso, ezin duela IBERDROLAK bere ardurapean hartu. Zu zara igorlea; hortaz, zuk baino ezin diozu eskatu garraio-konpainiari ikerketa bat irekitzeko.

Baldintza hauek guztiak bete behar dira IBERDROLAK produktua itzultzea onar dezan:

- Bidalketan IBERDROLAK bidalitako produktua itzultzeko formularioa sartzea.
- Produktuak jatorrizko egoeran egon behar du (zigilua, bilgarria, osagarriak, gidaliburuak, etab.).
- Produktua ez bada behar bezala erabili edo gehiegi erabili bada, hondatuta aurkeztu bada edo, oro har, produktuaren helburuari dagokionez erabilera okerra eman bazaio, kontsumitzaileak ez du produktua itzultzeko eskubiderik izango.
- Ez da produkturik itzuliko, kalterik jasan badu edo jatorrizko bilgarria hondatu bada. Bereziki, produktuaren bilgarria itzulketa bidaltzean hondatu bada, IBERDROLAK ez du itzultzea onartuko.

3. pausoa: dirua itzultzea

Itzulitako produktua jaso ondoren, IBERDROLAK behar bezala jaso dela baieztatuko du, mezu elektronikoa bat bidaliz. IBERDROLAK eskubidea izango du baldintza horiek guztiak bete diren fede onez erabakitzeko. Produktua itzultzea eta dirua itzultzea onartzen bada, 30 eguneko epean itzuliko da dirua, gehienez ere, produktua jaso dela egiaztatzen duen agiria bidali ondoren.

10. Erantzukizuna eta berme mugatua

IBERDROLAK eskaintako produktuak bat datoz indarrean dagoen Espainiako legeriarekin. IBERDROLAK ez du erantzukizunik izango kontratua ez bada erabat edo partzialki betetzen edo atzerapenen bat sortzen bada, produktua stock-etik kanpo dagoelako, erabili ezin delako edo arrazoi handiago bat tarteko. Arrazoi horietan sartzen dira, era berean, Interneteko segurtasunean egon daitezkeen akats larriak, akats

teknikoak, webguneetako zerbitzarietan baimenik gabe sartu izan, edozein motatako grebak eta ekipo informatikoetako edo arreta telefonikoko zerbitzuetako akatsak.

11. Baldintza hauen baliogabetasun partziala

Edozein jurisdikzio-epaimahai eskudunek baldintza hauetako xedapenen bat baliogabetzen badu, edo xedapenen bat baliogabetzat jotzen bada lege edo arau baten ondorioz, xedapen horren baliogabetasunak ez die eragingo gainerako xedapenen balioari; hau da, indarrean jarraituko dute eta eragin osoa izango dute.

12. Aplikatzekoa den legea eta erreklamazioak

Espainiako legeriak zuzentzen ditu Baldintza hauek.

IBERDROLAren salmentak gaur egun Espainian indarrean dagoen urruneko salmentari buruzko arauen mende egongo dira.

Bezeroak egokitzat jotzen dituen erreklamazioak egin ahal izango ditu kontratu honi lotuta, honako helbide honetara idatzita: IBERDROLA CLIENTES, S.A.U., Bezeroaren Bulegoa, 1732 zenbakiko posta-kutxa, 28080 Madril. Edo, bestela, IBERDROLAren edozein kanal erabilia: Bezeroarentzako Arreta Telefonoa (900 225 235), helbide elektronikoa (clientes@iberdrola.es), edo www.iberdrola.com webgunea, baita aurrez aurre ere, edozein Arreta Puntutan.